

# Matematikak

## Ebaluaketa

1) Zein dira 20ren anizkoitzak ?

70          60          42          200          240          250          1000

2) Baditut 56 auto ttipi, nahi ditut estaiaretan bildu baina estaiera guzietan nahi ditut ber auto kopuru. Atxeman itzazu posibilitate guziak. (8 posibilitate)

3) Kalulusek 35naka kondatzen du, Otik abiatuz. Ez bada nahasten, zein zenbaki erranen du :

a. 105 zenbakia ?

b. 360 zenbakia ?

c. 700 zenbakia ?

# Literatura

## Harri salda (2. Parte)

Hara, beraz, gure bi zirtzilak<sup>(1)</sup> atean joka. Maienak ireki<sup>(2)</sup> zien eta erran :

- Zein gaizki heldu zareten ! Ogi eskasean<sup>(3)</sup> naiz. Auzoari galdegin beharko diot arrats honetako doia.

Manez, bietarik abilena<sup>(4)</sup>, ohartu zen maienak ez zuela usaiako begitartea<sup>(5)</sup>, eta erran zion :

- Ez ezazula bururik hauts<sup>(6)</sup>, gaixo etxeoandrea. Egun ez dugu lasto pixka bat baizik behar pixkolatzeko.
- Lastoa baizik ez baldin baduzue behar, gure selaurua hartaz beta da. Zoazte gustuan !

Pette harritua zen, ez zekien zer pentsa. Lagunari begiratzen zion zerbait erran nahiz, baina hark isiltzeko keinua<sup>(7)</sup> egin zion. Emaztea eskertu zuten eta igatekotan<sup>(8)</sup> zirelarik, Manezek erran zuen :

- Bazinuke, bai zerbait eskatzeko<sup>(9)</sup>. Gure afaria zure su gainean egosarazten<sup>(10)</sup> ahal duguia ? Gaur harri-salda egingen dugu.
- Harri-salda ?
- Bai, hori da guk, pobreek, ezagutzen dugun errezeta bat.

---

### Hiztegia :

- (1) Zirtzil : canaille
- (2) Ireki : zabaldu
- (3) Eskasean : en manque
- (4) Abil : futé
- (5) Begitartea : regard
- (6) Bururik hauts : se casser la tête
- (7) Keinua : geste

(8) Igatekotan : en montant

(9) Eskatu : demander

(10) Egosi : cuire

### Galderak :

1. Zer galdegin dute Manez eta Pettek :

A - Ogia

B - Lasto pixka bat

C - Salda

2. Nun da lastoa :

A - Selauruan

B - Auzoaren etxean

C - Kanpoan

3. Zer behar dute besterik Manez eta Pettek :

A - Hura

B - Ogia

C - Afaria egosi

4. Harri salda noren errezeta da :

A - Maienarena

B - Probreena

C - Xakurrarena